# Kardabetaz

EUZKEREAK BURUA JASOTEA NAI DI JAUNGOIKUAK



LEKUONA'TAR IMANOL JAUNARI

III'gna

I Eskintza ........ 1 ingoskija
II Egunabaria ........ 2 „
III Uzkurtz-zale ........ 4 „
IV Eusko-elea 7 „
V Josu Jaupari 11 „
VI Biotzez Zorion (olerkia) 17 „
VII Irgi, Katarin Done (olerkia) 19 „
VIII Uzkurtz-edestia 21 „
IX Josu Jauna ta Kepa Deuna 24 „
X Eleiza ta langilea. 26 „
XI Eri-siñestiak 29 „

¡ Aurrera Betiko Kardaberaztar!

Lekuona'tar Imanol, gure irakasle maiteari biotz-biotzez.

¡ Zori !

¡ Aitarentzat semeak

¡¡ Lore-pil mardorik !

¿ Eskuko au... norentzat ?

Zuri zor gak ¡ Zori !





## ~ Egunabara ~

Oraintsuarte Ludiko buru, bare ta baketsu, nekusan gaba.

Etzan iñundik-iñora argirik agiri. Gaba zan nagosi. Orain, urduri dala dirudi.

Geruago ta larijago. Bere soin lodijak, ikaraz dardar dagi. Bere tajuba agure-zar kezkatijarena dala niñoke. Il-zorian ete? Ala zareri yo bildurgarrien bat awez? Larri, urduri, dardar, itun... dagi gaba.

Ba-dau bai, zergatik ilunti ta kezkati izan.

An dau, ta, argija, bere [illegible] jairik buiukatu-bena. Bijak, gaba ta argija, bata bestiaren buru izan nai... Buruka zoli-ixila bien artekoa. Bata, zintzua, be. Mutil koskor zital amoratu-bena zapaiadatzubagua ixaten da.

Uratu-une aundijak dagerz gabak bere soin-mardulian. Gozetan argija da nagusi. Aldapa-bera, mendi-zulo zokonduetaruntz doya iluna, gaba. Pagodi, aritzi ta berezijetako ori-ots eten-gabiak gabaren negar-ixila dirudije. Zantai luze lerdenen zartakadak ilunaren zotiñak. Ibaretatik, be, iges doya iluna mendi zuluetaruntz. Bere tayu lotsagarija ezkutatzera doya. Mendi-ondo ezkutu bakartira da; baña argijak beretzat nai dau mendi-ondua. Alaxe, be, eldu da. Ilunarenak egin dau. Mendi-ondotik goruntz, narajka, erdi-tatarez ta nagi dozan laño-motzo, saretsu erdi-uratu nesazaren bidez agur dagijo [illegible] ijan.



## ~ Uzkuŕ-zale ~

Jaungoiko-gaberik ez da ludian. Guziak, aundi ta txiki, daitorte Jainkoa. Agirian batzuk; izkutuan, barneau soil, bestetzuk. Bañan uzkurgeak... zenbatu ala. Uzkurtzgez estalia dakusgu ludi guzia. Uzkurtzgeak nunnai dira ugari. Uzkurtzak ez ba'du Jainkoa aitortzea aski; Jaunari men egin bear baitzaio uzkurtzak izateko. Ta Jainkoari men ez dagioten, zenbat ludian...! Jaunari mořoi ez datorkioten zenbat lurbiran.

Baña, auen aurez, aueri arpegi lerden emanaz, uzkurtzaleak didorogu. Goi-Jauna daitorte ta berari mořoi datzaiote. Kistar katolikoak dira uzkurtzale guzien [illegible]dari. Uzkurtz asko dira baña bakaŕa egia, ta bakaŕa uzkurtz egin duna ere.

Ez du izan beai azkaia au nabaritzeko. Jai ko bakaia da. Kisto Jainkoa da. Ez ote, bada, onen esana egin beai benetako uzkurtzale izateko? Ta Kistó'ren aginduak bete izan dituan, uzkurtza, katolikua da.

Uzkurtz asko dira, len esan bezela. Jainko bakaia daitorte batzuk; jainko asko bestetzuk. Protestanteak didorogu lenen. Jainko bakaia daitorte auek; eta gai askotan katolikoakin bat izan aren ez-berdin aundiak dute biak.

Biak daitorte Kisto-Jainko; baña, protestanteentzat au aski da "Gogor sinistu ta oben lguzietako atea zabalik dezu" da euren ikuia. Katolikoentzat, ordea, beaiezkoa da obenik ez egitea. Idazteuna irixteko eskubidea ere badute protestanteak. Katolikoai, beriz, ez zaie au zillegi. Elizak berak irixten ditu Idazteunak. Protestanteak Englandeian, Holandá'n, Sueria'n, Noruega'n, Finlandia'n Letonia'n, Lituania'n, Estonian eta Dinamarka'n dira na gusi. Erdizka, Alemania'n, Suiza'n, Rumania'n eta Ipar-Amerika'n. Ludiko alderdi batzuetara ere, baietu dira.

...atikoak dator ondoren. Eleiz-katolikoare ...
guziak sinisten dituzte. Bañan, Aita-Sa... en ...
... ite. Errusia'n, Grezia'n, Jugoeslabia'n, Bulgaria'n,
... iqi... n, Abisinian eta abar, dira nagusi.
Mulmandaiak ere, Jainko bat daitortte baña ez Kisto.
Auentzat igarle bat baño ez da, ta Mahoma
... bereria. Koran deritzan liburua dute auek idaz-
... n. Gezurez beteriko liburua da ta ez zaio iñori ere
legi ez epaitze, ezbere esanen zalantzarik izatia ere.
... ta Erdi-Afrika'n, Be-ezker Asia aldean dira na-
gusi. Auek dira Jaun bat daitorten uzkurtzak.
Auetzaz gañera, edesti aurreko feen-gizon batzu;
baña auek guzietan katolikoa egitiak. Auek daramaz
gizonak zuzen. Aztertu guziak, ta onek darakutskio
gizonari gizon izaten; gañerakoak abere bezela bizi
izatea zilegi dala diote beren ikaskizunakin. Kistar-
katoliko uzkurtzak jarri ditu erriak aurrera bidean. Kis-
tar uzkurtza dala bide, barreia da jakintza lurbira
guzian. Eliz Ama Doneak egin zituan jopuak gizon,
emakumea gizonaren malara igo; gudaketari muga-
... jarri. Onek darama orain ere jakintza erri
erri atzeratuetara.

Luze ez izateagatien utzi ditzagun uriengo-
rako Jainko asko daitorzten uzkurtzak.



# EUSKO-ELEA

Izkuntz zaara ziñez gure euskera berezia. Europa osoan antziñakoena agian, ainitz jakitunek dasagutener. Noiz ta nondik datorkigu...?

Aneika atzer-izkuntzekin bakaldu nazan ibili oi dira ele-jakitun galenetakoak. Baña, beren buru-auste oro utsean gelditu... Berdintzik ez bait du gure mintzoak. Berezia-bezia baita. Izkuntzak, ene irakurle, zugaitz bat antzo dituzu... Adar ugariko zugaitz bat antzo... Zugaitz adaiak zurbil bat-batetik etortzen diran lez, bereberki datorkiguz izkuntzak ere zurbil edo jatorburu bat-batetik.

Begira: Europa'ko izkuntz ainitzenak "Indo-Europeo" deritzaion jatorburutik

datorkiguz. Beste asko "Ugro-Finés" deritzu-
jonetik. Batzu "Uralo-Altaica" deritzaionetik...
eta abar... Baña, iñondik, ez dago guro euskera...
¿Umezaiñiko ote...?.
"Indo-Europeo"ari ezañ diotenak ba'dira "U-
gro-Finés"ari ere bai... Iñork ez daitor, ordea, pi-
pir ezertxo ere, gutxi gora-bera baizik. Ar-
tan geldiken da jakintza guzia...
Eta zer dasakezut, irakurle, auzi oni buruz?
Zu bezin jakituna ni ere, alegia. Baña zu ta ni
ere galenetakoen artean oraingoan beintzat...
Aiek ixilik... guk ez itzik. Aiek txiki... ta gu
ez aundi. Aiek apal... eta gu ez aiò. Gu bestian
aiek ere. Guziok mala baten...
(Zaaña dugu, bai, euskera, txit zaaña. Zartza-
roaz eriotz-peera eroriko ote zaigun dasate
batzuk. (Baña milaka urtetan bizi dakusgun
mintzaira, zar dala ta galduko ote? Ez, emen
gera gaurko euskotarok ere asabengandik artu

arta gendun elea, gure ondoregoeri uzteko.
Gure asabak ainbeste ta ainbeste maite izan zuten euskera, ukatu guk? Ez orixe. Eurak ain biotzetiko izan zuten bitxi liluragaria, biotz gustiz "maite" ta "zabalduko" al dugu guk ere.
"Maite" ta "zabaldu". Bi itz oriek, irakurle, indar aundia daramate. Bata bestiaren atzetik jun bear dute beti... Iñoiz alkarengandik aldendu bage... Lendabizi maitetasuna. Ezin baitgera maitetasunik be ezertan eie asi. Eta, maitetasuna oñari dugula, zertan ez...?
Gaur-eguneko ainbat euskotaiek euskera zabaltzeko alegiñik ezpa dagite, euskerarenganako maitetasunik ez dutelako da.
Eta... jakiña... oñari bage etxerik ezin zutitu... euskotar ozen aldetik euskereak beyo jo bear...iii Zamala!!!
Zerbait maite izatekotzat, geron elea maite bear genduke ba... Eta Gaur iñoiz ez bezela...

Euskal-erian bertan... bere etxe bertantxe ezetzita dakusgu euskera... Ikaztoletan euskerarik ez...; Auzitegietan eraguntzen ez... Itzaldietan beti erderaz mintzo...

Ez, irakurle, ezta au zintzo jokatzea. Euskotarrak euskotar lez jokatu bear dugu... Eta gure eginbearrik aundiena euskera zabaltzea da. Nola zabaldu...? — Beti euskeraz mintza gaitezen. Itzaldiak euskeraz... Jardunak euskeraz... Idaztiak euskeraz... Otoitzak euskeraz... Baña beti. Orduan, bai euskerak buruа jasoko duala... Saiatu, bada, irakurle, gure izkuntz zoragarri au beti zuti... lirain eta gazte dakuskegun.



# JOSU JAUPARI

"Tanquerey'ren "Notre Sacerdoce"tik"
euzkeraldutako atalburua

~3na- Josuk bere buruba Goiko Atari eskeintzen deutsa:~

Gixonak bere buru-ordezkotzat abere edo beste i-
xakiren bat jaurestu oi-eban Itun Zaŕeko jaures-
kuntzetan. Edolezko-jaureskuntzetarako (gurenentza-
ot o' ixaten euzanetarako), abere etxetiren bat au-
tuten eben. Ixan, be, gixonaren-ordezkotzat eratu
leikijan izakirik egokijena abere etxetija da.
Jainkoari jaurestekotan autetji eben aberia,
ostingo biar-ixan eta zereginetatik aldendu
ta baztertu oi-eben. Berarizko ezkintza-bidez
Jainkoaren aintza ta joputzarako berezitzen eben.

Obenaz Jainkua iraindu dogulako bixigaŕi erkarela adierazotiaren, Jaunaŕi opaltzen jako gure-pidetzat abere ten eskiñia. Oben-ordain-gaŕitzat egiten diran opaltkuntzetan aberekin bata eŕe ta lestia jaurelleak eta abere zabak jan egiten gordeten zan. Jainkuaren eta gizonaŕen artian jaurestkuntidez egiten zan alkartasuna Haratausgu aberekin jate onek.
Gixonen eta Jainkoaŕen arteko adixkidetasuna obenak autsi eban. Eta jaurestkuntza oneik adixkidetasunoi beŕiztelko d'ra. Edozein jaurestkuntzatan iru egikizun dogus: Eskeintza, opaltkuntza ta eŕetza.
Itun Baŕiko egiazko jaurestkuntz bakaŕaren ikuŕkuŕ edo irudijak baño etziran jaurestkuntzoŕek.
Gixasemeak, Itun Baŕiko Apaizpurumak bere Ata Goikua goraldu ta aintzaltziaren opaldulko eban oparen idurijak ziran.
Oben-egin eban gixonak. Eta Jainkuari egin eutsan iraña ordaindu ta garbitzeko ordain-indar muga bako opa bearra zan.
Orixe zala ta Josu gixon egin zan.
Gixonen ordez bere burua Goiko Atari

jaurestekotan gixon egin zan. ¡Josuren opau bai ba-dala ederra! Onetxek bai dalela, ordain-indar muga bakua. Bere burua opagaitzat Jainkoari eskeintzen deutsa. Josuren opau baño ederragorik eta ordain-indar aundijagokorik, ezin aukeratu ezelan be. Opagaia guzienagua ezindakua dogu, Josu berbera da-ta. Opa-eskintzak, izan leikenin aundikijena. Jainkuaren-Semia, Josu.

¡Josuren jaurestkundian oien ederatta guzena dogu! Banaka-banaka beroien lau egintzak gogaz hartu dagiguzan. Eskintza, opaltza, e-jetza ta jatia dira lau egintzak.

~ 1) Opagai-eskintza. ~

Miren Neskuntz garbijaren sabelian sortu zan lipaarian gure Apaizburu egin zan Jainkuaren Semia. Bere Aita jagokonez aintzaldu egikijan jaureskuntzarik eran Itun Zarrian. Josuk ba-ekijan. Sutopa ta ostengo

jaureskunde oroen ordez, berberak bere bu-
rua eskiñi eutsan Goiko-Aitari: "Eztozu oparik
ez eskeñik nai izan; soña emon deustazu... Or-
tuan auxe esan dot: Ona emen ni, Jainkua, zu-
re naya egiteko gertauta." (Paul D. Eber. x-5,9.)
Ona, or, lenengo ta egiazko jaureskuntza. Gizata-
suna artu daben Jainkuaren Semiak bere burua
opagaitzat artu dau. Eta Miren'en bijotz gar-
bi-garbija opagayori eskintzeko maitzat. Guru-
tzian zintzilizka opalduko ban soña Miren'-
en bijotzian eskiñi eutsan Goiko Aitari. Gurutze-
ra orduko, be, amaika aldiz ildura-en-ildurez o-
paldu ta eskeñiko eban. Soña ez bakarrik gogua,
be, eskeñi eban. Orduantxe eskeñi euzan bere
gurari, gogai, naikun orr. Bere bizitzaren buruan
amaika menpetasun-eredu ugari ta eder emongo
eutsuzan, Sein sorbari Arek.
3) Gurutzian opalduko eban bere burua. Oreta-
rakoxe gixondu zan; orixegatik ludi oneta-
ratu zan. Ogetamairu urtiak gurutzeko

opa alik onduen jaunesteko, gertetan emon eu-
tzan. Bere bixitza, amai bako gurutza ta zi-
ñalpen edo martirijua ixan zala diñosku
Kenpis'ek "Tota vita Christi crux fuit et
martyrium."

Espetxe baiuan letxe, Miren'en sabelian
bixi ixan zan bederatzi ilabeteren buruan.
Goguan dauka beti bere Ata. Dan guztija
Atetxi eskintzen bixi da. Beti Goiko Ata
gurtzen, goraltzen, maitatzen eta Berari eskerr-
ak egiten diñardu.

Dagin guztija gure oben-ordaintzat dagi. Be-
re Ataren ziengo gu, bere anaiok maite gaux.
Bere bixitzan jasango dauzan neke-miñen eta
ixuriko daben odolaren-bidez gaizkatu gura gin-
dukez bere anayok. Ezukior jaku ta bijotzez maite
gaux; onak eta txaiak, obendi ta zuzenok, danok
maite gaux, bere soin mistikuaren atalak gara-ta.
Eskar gotiaiez guritu ta jantzi nai-daux zuze-
nok. Diran baño obak bailira nai leuke.
Oronaldezsaren zutsnak dagijoz Bere Atari.
Eta Goiko Atak Jesu'ren auen orok onesten
daux. Exauditus est pro sua reverentia".

Ora or lediratzi ilaleteko Josu-ren peregiña.
Berealdija eldu jakonian jaio zan gixon eginda
eguan Jainkuaren Semia. Jayo zan'k, be, etze-
kijan iñok. Gixonak ezeutsen jaramonik egin.
Eta gixdijak ezelela ezagutu gura ixan, diño
Jon Deunak "In propria venit et sui eum non re-
ceperunt." Ostatuan bere gurasoenkat tokirik
etzala ta, tzabola erukarijan jayo zan, Lu-
ka Deunak diñoskunez "quia non erat locus
eis in diversorio".
Alor, ba, otzaz dardar ta erdi biloțsik gixo-
nakaren jayo dan Jauna. Zer egin ugari
dau. Gixonak, ostera, astuta...

~ Itz atzalgarijak ~

Jaureskuntza = sacrificio
jaurestu = sacrificar
odolezko-jaureskunka = sacrif. cruento
gurenez = perfecto
eskintza = ofrecimiento
oben-ordeingari = expiatorio
opalkunka = inmolación
ordain-indar muga bako = valor moral infinito

eretza = consumación
opa = sacrificio
jatia = comunión
lipar = instante
sutopa = holocausto

## Biotz-biotzez: Zorion!!



¡Ura bai zala artzai zintz.
bart lotan amets-egindakoa.
Soro, belardi, ibar parsak
(¡Ene! ¡art bai nik amets-goxoak!
Zearkatuar mendiruntz joa.
Aitzgorin nitun zangoak
Eguna alper... ilun Izadi...
¡Mendi maitea, esnatu adi!
Ixil belea ala arkumea...
Zer dek Eguzki ain nagi?
Ortzeari so, bildur antzean...
Bakar-bakarik mendi betean.
Bildur-bildurez galdu naizenez!
¡Baso ilun bat topo aurrean!
Barnera nintzan buruz naasi
(Ekaitza ere nunbait zan asi)
Dardar muinetan lauso begietan
¡Ene! Basoan korapi!.

Bat-batean
artzai bat aldean,
nere bildur-ikara
uxatu naiean.
-"Mutiko!
Ene txabolan biziko.
Gaurtandik
Inigar zenbilzke poz-pozik".
Zorionez ler nigan biotzak
beiñolo uxatuz ikara-otzak...
Txabo - aldera
maldaz beera,
gero gu bion oin-otsak.
(Ura bai, zala artzai zintzoa
bart lotan amets egindakoa!)
Txabolaz ure giñadelarik,
Ba'zan inguruan zakur-zaunkarik...
Ai! zaunka-artean,
egun-sortzean,
Amets zitzaidan igesi.
Jaikitzean, jai-usain:
Lorez Mai donea;
kanpantorea lirain
ezkila-burnea...
¡Ene! Aitaren egun, gaurkoa!
Zugana igesi ene gogoa,
bart aidtseko bozitzaleko
Artzai on, jator, zintzoa!
Egun on, aita,
egun on!
Biotz-biotzez:
zorion!!




# ¡¡ ARGI !! KATARIN DUNE

Maite-miñez negaŕez
daukat nik Adimen,
Egi'k, so egin eta,
Lilura dit leen
Gerortik ari jaŕai
dabil. Egi, orde,
Jakintz bas-ilunetan
aŕoki da gorde.
Sumatu du nolabait
Adimen zintzoak,
uŕendu da basora;
baña bas-itzalak...

ilunik utzi dio
leen argi sua.
Za i lagun egi zintzo?
indar du ozua.

~~~~~

Iñoiz bez entzun-gora
oju maitekora

~~~~~

Zoaz neskato apala
neri ozuka dana
ar zak eta maiteki
ekar neregana.

~~~~~

Adimenak maitale
Egi oi du beti,
ta, zu, Katarin Done,
bien erdi-zuli

~~~~~ . . . . . ~~~~~

# UZKURTZ-EDESTÍA



Uzkurtza det gaurkoan, irakur-
le, idaz-lan. Zure ikaskizunetatik
zerbait, zeetu ta bedérik, azaltzia dizut asmo.
Uzkurtz-edesti pixka bat.

Uzkurtz-edestia beste izen batez Uzkurtz-jakin-
-tza dasaioguna degu. Eta Uzkurtza? giza-bizitz
egimenaren agerpen bat da Uzkurtza.
Ezin darkikegu uzkurtzgeko ez eri eta ez gizaldi-
rik. Beti-danikoa ta non-na-ikoa dala uzkurtza a-
tor dezakegu zalantz gabe. Betiko ta non-naiko
izaki uzkurtza, ta era askotakoa uzkutz-agerpena
ere. Bizi-lekuari buruz, edo giza-izakerari buruz
edota beste ainbat zergateri buruz, asko lekutan
berezia izan oi da "agerpen" ori.
- Eta uzkurtz-edestiak zertan du lan? Uzkurtz
berezitasun oretxek bildu ta alkar-neurtzen
du lan. Ondoren gauz eiera gure adimena-
rentzat berezitasun oien izakera bereganatzea

Orixe baita, alkar-neurtzearen saria. Emen dasaiogun guztiari buruz, ludian diran ainbat urkurtz alkar-neurtu bearko ditu urkurtz-edestiak.

Beraz, urkurtz-alkar-neurketa da urkurtz-edestiari dagokion lana.

Edestia zer da, ordea? Ez egintz-edesti utsa, askok uste dutenez. Ori bestez, gauz bakotxari dagozkien gertakizun, aldakera, kidetasun-azalpena ere bai gañera. Beraz, ona emen, irakurle, urkurtz-edestia zer dan esanda.

Urkurtza zerdan, nolabait bederik, esan dizut aurrerraxeago. Baña, geiago sakonduz, auxe dizut: Gizonok, ludi ontako ez dan, arkez berez bera dan eta Jainkoa izena duan Izaki bat degula gure gain zinistu ta aitortzea da Urkurtza "berez" (Sujetivamente) Jainkoari zor zaion mendetasuna bera da, urkurtza berez. (Objetivamente.) Urkurtz-edestiak non du bere sor-bidea? XV'garren gizaldiko juan-etorri entzutetsuetan du Urkurtz-edestiak sor bidea. Urkurtz alkar-neurketa izaki Urkurtz edestia, ta iñora atera gabe nola sortu besteen urkurtz beri izan gabe? Juan etorri aietan gauz asko zekusten Baña urkurtz guziak ez berdiñak zirala ta batek baietz ziona, besteak ezetz ziola ta, ara orduko giza-burugabekeria:

Uzkutz bat ere etzala egizkoa.

Beraz, oñazpira uzkurka.

Bideskoa, ote, erabakia? Nik ezetz uste. Auxe gaitik burugabekeria iruditu ere. Ikus bestela beste aurrik jakintz-gaiei buruz zegiotena. Jakintz-gaietan ere bariran bateko "baietz" ta besteko "ezetz"ak.

Beraz, uzkurkari bezela, jakintz-gai aiei ere ostiko eman da kito!. Bat ez, bestea ere ez.

Baña zer uste, irakurle? Uzkurkari ostiko, baña beste jakinkgairi aŕera on. Zergatik ote? Beren griña ta naikeri lizunari atsegin ematiaren bakaŕ-bakaŕik. Onaemen orduko ta gaurko bidegabekeria.

(Zaŕaike)

# JOSU JAUNA TA KEPA DEUNA (Lapurdieratik bizkaierara





– Arau-botzen –

Euzkadin zear ba-ebiltzazan Josu Jauna ta Kepa deuna. Ibar zabal baten arau-esten iñarduen baseritar batzuk. –Itai ugari daukozule? Josuk itandu eutsen. Uri, Jauna, naiko uri, ba, jardetsi eutsen baseritarak. Josu, mistikatera barik aldendu zan. Arutzago, beste zolo baten, be, arau-giñan iñarduen beste baseritar batzuk idoro ebazan. Erime-erime dozu gizonak? Bai, Jauna, bai. Gitxiago izan genkijan. Jainkoak emon dauzku ta berari zor dautzagu eskerrak.

Josuk, orduan, Kepari «Arauerikaña imiña-gari izan bekije» Eta Deun Kepak jendiari begira apur bat gelditu ta aopez diñotse: «Arau asko ta beikiak egizuez.»

## ~ Andraskua ta diabrua burukan ~

Beste bater, be, ba-oyasan nonoruntz Josu Jauna ta Kepa deuna. Baña ikerdijan andraskua ta diabrua auskan dakuser. Euraganatu zan Kepa ta bizeri buruak moztu eutzia zan.

Josuk agirika egin eutsan Kepari. Eta bakoitzari bere burua lengo tokian jartzeko agindu eutsan.

Zaka-taka juan zan Kepa, ta andraskuaren burua diabruari ta diabruarena andraskoari yari eutsezan.

Ordunerkerokua dogu esakuntza au:
"Andraskuaren burua, diabruan burua"



## Eleiza ta Langilea

Nik esan bearik ez duzu, irakurle. Gaur-egunetako ainbat langilek zer desaten zerorek ere dentzuzu... Beren etsairik gogoŕena Eleiza omen da...

Langilea zapaldu naian omen dabil Eleiza, aberats-dirudunekin bat egin-da...
Eleizak ondatu omen du gizarte oro...

Egia ote ?

Ez, Akurk. Begira: Eleizak bi alderdi ba-ditu: Nagusi-dirudunak batetik eta langile bestetik. Alderdi au gora ateratzeaieni zer ez dagi Eleizak! Sortu danezkerotik asmo ori ba'darabil beintzat. Eleiz-edestia zabaltzea duzu aski. Langilea dala-ta... anaika itz-samur-goxo ba'didorokezu. Beti dakuskezu Eleiza langile-alde. Eta orelaxe jarraituko ere langile gaxuak nagusi-aberats-bidegabekoen menpetik atera arte... langileari dagokien askatasuna lortu arte...

Guziok ez al gera, ba, aske bizi izateko egiñak...? Beraz, batak bestia menperatze ori ez da bidezkoa. Aimak ez du askatasunik sortzen, Jainkoak baizik... Ez beza gizonak Jainkoari aiñerik artu.

Beartsuak... zoritxaitekoak, gizadiak dirauken arteraño izango dira, noski..; giza-izamena onelakotxea bai-ta. Beraz, batzu, nai ta ez, zoritxareko bear dute. Batzu, ordea. Ez gizonak nai ainbat. Jainkoak du onetan lan.

Baña ala ta ere askok (nagusi-aberatsak alegia) beren burua goi agertu nai beti... Ain kaxkarak izaki, gorengo malan jari nai... Eta eurak bezin gizon diran langile gizarajoak, ere-antzo darabilzkite... Gogor lan eragin eta gero... dagokioten saria ukatu... Eurak lasai bizi ditekezen, langilia albait estuen artu... Auxe da, zoritxarez, gizartian dakusguna.

Eta au alda Eleizak darakusgun irakaskintza? Ez irakasle. Ez ligu Eleizak batak ostia menperatzekorik agintzen... Eleiziaren aginduak zuzenagoak, bidezkoagoak ditugu. "Lagun urkoak ere geren buruak bezelaxe maite maite bear ditugula" darakusgu Eleiziak... Beri, "guziok, nagusi ta langile, anai bezelaxe jokatu bear dugula, guziok Aita bat-baten semeak gerala ta." Auxe da Eleizak darakusguna. Berarí ez menpekeririk. Duintasuna bakarrik izan dadiñula gizartean.



# -EŔI-SINESTIAK-

1.- "Umiari" begirkorik iñok egin eztagijon, aldatzen dan bakotxian ikatz-kondotxuagaz "Ataren" amak egin biaŕ dautse.

2.- Eta iñora eruan biar danian "kutuna" papaŕian-edo ipiñi biar jako.

3.- Beste auzune bateko jaia zala ta senar-emazte bi umiagaz juan ziran senidietara. Barkatarako awiez esanda egozan, ba, Baña senidietara ojazala, umiak negaŕari emon eutson. Barkari guztijan, be, ez zan ixildu. Egiñ-alak egin eta umia ezin ixildu. Alako baten asperta zan ama ta umia besuetan negaŕez etala etxera buztu zan. Etxian, be, ezin ixildu. Orduan, atak goxian aldatu eban alkundariagaz, umia bateko atita zaŕak agindu eutsan amari. Eta amak ataren alkondariagaz batu-batu egin ebanian ixildu zan umia.

KARDABERAZ-BAZKUNA
IKASI TA ZABALDU
"...URRERA-BETI"